# gaurko filmak

| | |
|---|---|
| **Corazones silenciosos** | ★ |
| Zuz.: John Caire. 88m. AEB. 1999. | **11:00 La 2** |
| **La ley de la horca** | ★★★ |
| Zuz.: Robert Wise. 95m. 1956. | **18:10 ETB2** |
| **Circus** | ★ |
| Zuz.: Rob Walker. 90m. EB. 2000. | **20:45 C+(f)** |
| **La corde** | ★★★ |
| Zuz.: Alfred Hitchcok. 75m. AEB. 1948. | **20:45 Arte** |
| **L'idealiste** | ★★ |
| Zuz.: Francis Ford Coppola. 135m. 1997. | **20:55 F3** |
| **Tierra de cañones** | ★ |
| Zuz.: Antoni Ribas. 114m. Esp. 1999. | **22:00 C+(e)** |
| **Tu nombre envenena mis sueños** | ★★ |
| Zuz.: Pilar Miro. 120m. Esp. 1996. | **23:35 TVE1** |
| **Les deux anglaises et le ...** | ★★ |
| Zuz.: François Truffaut. 130m. Fran. 1971 | **00:45 Arte** |
| **Las maravillas del universo** | ★ |
| Zuz.: Jean Michel Rous. 100m. 1997. | **00:46 C+(e)** |
| **Doctor G y su maquina de bikinis** | ★★ |
| Zuz.: Norman Taurog. 85m. AEB. 1965. | **02:45 La 2** |

| ● | ★ | ★★ | ★★★ | ★★★★ |
|---|---|---|---|---|
| Txarra | Eskasa | Balekoa | Ona | Bikaina |

Ane Muñoz



Emma Suarez eta Carmelo Gomez, Miroren filmean.

## Pilar Miroren testamentu garestia

**TU NOMBRE ENVENENA MIS SUEÑOS** ★★★ **TVE1 - 23:35**

Zuz.: Pilar Miro. Akt.: Emma Suarez, Carmelo Gomez. 120 min. Espainia. 1996.

Pilar Miro zenaren azken filma Joaquin Leguinaren izenburu bereko eleberriaren egokitzapen garestia da. Gerra osteko giroa berregiteko dekoratuak, jantziak eta atrezzoa kontu handiz zaindu zituzten, baina ez zuten lortu ukitu errealista ematea, estetika artifizial samarra baitarabil, argiztapen klasiko zainduegia, tartean. Giro horretan, emakume gazte batek senargaiaren hiltzaileei mendeku egin nahiko die. Emma Suarezek eta Carmelo Gomezek, hilabete batzuk lehenago Mirok berak *El perro del hortelano* bitxian parte hartzeko deitu zituenak, rol garrantzitsuak jokatzen dituzte, bigarren mailako hainbat antzezle ezagunez inguratuta. Narrazioaren egitura nahasiak are zailagoa egiten du melodrama ilun hau.

**CORAZONES SILENCIOSOS**
★ **La 2 - 11:00**

Zuz.: John Caire. Akt.: Tricia Vessey, John Shea. 88 min. AEB. 1999.

John Cairek zuzenean telebistan emateko sortu zuen drama arrunt honek Nicky ikaslearen urratsei jarraitzen die. Mutil zail samarra zaintzeaz arduratu beharko du, gogoz kontra. Hasieran ez dira ondo moldatuko, baina, pixkanaka, harreman polit eta estua sortuko da bien artean. Istorioari ezustekorik erantsi ez izanak hasieratik zer gertatuko den erraz antzematea eragiten du. Eta hori ez da ona.

**LA LEY DE LA HORCA**
★★★ **ETB2 - 18:10**

Zuz.: Robert Wise. Akt.: James Cagney, Don Dubbins. 95 min. 1956.

James Cagney ahaztezinak Irene Papasekin batera 50eko hamarkadan protagonizatutako western berezi eta ikusgarria da. Robert Wisek nahikoa errealizazio lan polita egin zuen, generoa menderatzen ez zuen arren. Cagney txiki gogorraren izaera zailarekin hasieratik ohitzea komeni da, haren ekintza gogorrekin eta jokabide zakarrarekin urduri jarriko baitzarete, bestela. Urte asko igaro ziren Espainian estreinatzen utzi zuten arte.

**TIERRA DE CAÑONES**
★ **C+(e) - 22:00**

Zuz.: Antonio Ribas. Akt.: Lorenzo Quinn, Sydne Rome. 114 min. Espainia. 1999.

Lorenzo Quinnek protagonizatzen duen film berri honek Gerra Zibilaren amaierako Kataluniarantz garamatza, kutsu politikoa duen abentura historiko-dramatiko bat erakusteko. Protagonistek amodiozko istorio bizia izango dute, eta egoera politiko zailari aurre egin beharko diote. Anthony Quinn zenak agerpen laburra egiten du.

**LES DEUX ANGLAISES ET LE CONTINENT**
★★ **Arte - 00:45**

Zuz.: François Truffaut. Akt.: JeanPierre Leaud. 130 min. Frantzia. 1971.

Truffaut maisuak kamera bi ahizpa ingelesen parean jarri zuen, haien eguneroko kontuak, sentimenduzko harremanen gorabeherak barne, lan dramatiko zuzen eta hunkigarri honetan biltzeko. Emaitza Arte kateak bigarrengoz emango duen bitxikeria zahartxo hau da. Aktoreak txukun dabiltza eta lan sinesgarria egiten dute. Aurrekoan ikusteko aukerarik izan ez zenutenei gomendatu nahi dizuet, merezi du eta.

**DOCTOR G Y SU MÁQUINA DE BIKINIS**
★★ **La 2 - 02:45**

Zuz.: Norman Taurog. Akt.: Vincent Price, Frankie Avalon. 85 min. AEB. 1965.

Vincent Price, betiko Mad Doctor azkarra, G ezizena duen zientzilari eroa da orain honetan, hau da, Goldfoot doktorea. Haren azken asmakizuna bikiniz jantzitako emakume lirainen itxura duten robot erakargarriak dira. Goldfootek panpinok gizon dirudunengana bidaliko ditu, haien bitartez aberasteko. Taurogek abentura fantastiko zahartxo hau umorez bete zuen, eta bitxikeria txiki baina nahiko ero eta entretenigarria osatu zuen.

# irratia

| FM | |
|---|---|
| 89.2 | Segura Irratia |
| 90.5 | Antxeta Irratia |
| 91.4 | Euskalerria Irratia |
| 91.8 | Irulegiko Irratia |
| 93.6 | Arrate Irratia |
| 94.4/95.2 | Euskadi Irratia |
| 95.5 | Xiberoko Boza |
| 96.0 | Bilbo Hiria |
| 97.00 | Tas-tas Irratia |
| 99.8 | Herri Irratia |
| 101.3 | France Bleu Pays Basque |
| 102.5 | Bizkaia Irratia |
| 103.5 | Euskadi Gaztea |
| 106.6 | Gure Irratia |
| 107.5 | Txolarre Irratia |
| 107.5 | Xorroxin Irratia |
| 107.7 | Hala Bedi |
| **OM** | |
| 1224 | Herri Irratia |

**EUSKADI IRRATIA.** Tierra de Hombres gobernuz kanpoko erakundeak Kongoko Errepublika Demokratikoko haur bat ekarri du Euskal Herrira, hura sendatzeko asmoz. Horixe izango da goizeko 09:30ean jorratuko den gaia. Goizeko 11:00etan, Joxean Arbelaitz Eusko Jaurlaritzako kultura sortzeko eta zabaltzeko zuzendaria elkarrizketatuko dute *Goizean behin* saioan. Arratsaldean, berriz, hiesaren inguruan hitz egiteko aukera izango da: *Lauretan Babel* saioan Joseba Rekalde Hiesaren aurkako Harri Beltza taldeko kidea elkarrizketatuko dute. Azkenik, arratsaldeko 20:00etan, Frantziako hauteskundeak izango dira hizpide *Lagunartean* saioan. Hala, Piarres Xariton euskaltzainak, Ramuntxo Camblong ekonomistak eta Manex Goienetxe historialariak Frantziako gaur egungo errealitate politiko eta sozio-kulturalaz ariko dira.

**RADIO EUSKADI.** Javier Balza Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburua izango da *Boulevard* saioko protagonista. Saioaren barruan APNABI kolektiboak egiten duen *Los sonidos de...* atalean, aldiz, buruko gaixotasunen inguruan hitz egingo dute.

## ETB-1

**07:05:** Sam eta Max.
**07:30:** Betizu.
Zulakin eta Alberto otsopeto.
Sakura, kartak zakura.
Yogi hartza.
Gadge inspektorea.
**08:50:** E-klipse@.
**09:40:** Herri musika sorta.
**10:25:** Ederra eta piztia.
Telesaila.
**11:10:** Benta berri.
**11:40:** Duplex.
**12:00:** Esanak esan.
**12:40:** Bidaide.
Azken boli zalduna.
**13:35:** Betizu.
Shin Chan.
**14:00:** Gaur egun.
Albistegia.
**14:40:** Bertatik Bertara.
**15:10:** Sorginen laratza.
**15:45:** Gagnorarik gagbe.
**16:00:** Mundu galdua.
**16:40:** Bidaide.
Kalahari, muga-mugako bizimodua.
**17:40:** Ikusgela.
**18:20:** Betizu.
Muka-muka.
Shin Chan.
Betimu.
**19:45:** Betizu
**20:20:** Iparraldearen orena.
Iparraldeko albistegia.
**20:28:** Gaur Egun.
Albistegia.
**21:05:** Bertatik bertara.
**21:45:** Goenkale.
Telesaila.
**22:30:** Sorginen laratza.
**23:50:** Ispiluak.
**00:35:** Hau komeria.
**01:00:** Bakarrik edo...
**03:55:** Bertatik bertara.
**04:25:** Esanak esan.
**05:00:** Elkartasunaren bideak.
**05:25:** Euskal Herritik.
**06:00:** 64.
**06:30:** Ikusgela.

## TVE1

**06:00:** Canal 24 horas.
**07:30:** Telediario matinal.
Luis Mariñas, Isabel Duran eta Valenti Puigek aurkeztutako elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Jorge Valdano.
**10:15:** Nano.
Telesaila.
**11:15:** Pobre diabla.
Telesaila.
**12:00:** Saber vivir.
Magazina.
**13:00:** Asi son las cosas.
**14:00:** Informativo territorial.
Albistegia.
**14:30:** Corazón de primavera.
Anne Igartiburuk aurkeztutako magazin saioa.
**15:00:** Telediario 1.
Albistegia.
**15:55:** Eguraldia.
**16:05:** La verdad de Laura.
Telesaila.
**17:00:** La fuerza del deseo.
Telesaila.
**20:00:** Gente.
Pepa Bueno eta Sonia Ferrerrek aurkeztutako magazina.
**21:00:** Telediario 2.
Albistegia.
**21:55:** Eguraldia.
**22:00:** Cuentame como paso..
**23:30:** Nuestro cine.
(23:35) **Tu nombre envenena mis sueños**
Zuz.: Pilar Miro.
Akt.: Emma Suarez, Carmelo Gmeoz. 1996.
**02:00:** Telediario-3. Albistegia.
**02:30:** Reyes y rey.
**03:30:** Canal 24 horas.

## ETB-2

**07:00:** Del pais de los vascos.
**07:25:** Teknopolis.
**07:55:** Bonanza.
**09:30:** El punto.
Gonbidatua: Mohamed Mamun.
**10:00:** Forum.
Gonbidatuak: Javier Fernandez eta Fernando Coronado.
**10:35:** Clasicos en serie.
La casa de la pradera.
El amor no es como lo pintan.
**13:15:** La cocina de Pedro Subijana.
**13:30:** Euskadi directo.
**13:30:** Navarra directo. (Nafarroan).
**14:00:** Date el bote.
Lehiaketa.
**14:58:** Teleberri.
Albistegia.
**15:45:** Lo que faltaba.
Magazina.
**18:10:** Zinema.
**La ley de la horca**
Zuz: Robert Wise.
Akt.: James Cagney, Don Dubbins. 1956.
**20:00:** Esta es mi gente.
**20:58:** Teleberri.
Albistegia.
**21:45:** Doc.
**23:45:** Stargate.
**01:25:** Medias de seda.
**02:25:** Esta es mi gente.
**03:20:** Lo que faltaba.
**05:25:** Forum.
**05:55:** La botica de la abuela.
**06:20:** Gemas.

## A3

**07:05:** Princesa Sissi.
Telesaila.
**07:30:** Club Megatrix.
Wedding peach.
Tres amigos y Jerry.
Campeones.
EEK.
**09:10:** Boletin informativo.
**09:30:** El primer cafe.
**10:30:** De buena mañana.
Magazina.
**13:25:** Nada es para siempre.
Telesaila.
**13:25:** Informativos territoriales.
Albistegia.
**13:55:** Desesperado club social.
Malcom un the middle.
Los Simpson.
**15:00:** Antena 3 Noticias 1.
Albistegia.
**16:00:** Yo soy Betty la fea.
Telesaila.
**17:00:** Sabor a ti.
Magazina.
**19:00:** El diario de Patricia.
Patricia Gaztañagak aurkeztutako magazin saioa..
**20:00:** Pasapalabra.
Lehiaketa.
**21:00:** Antena 3 Noticias 2.
Albistegia
**22:00:** Al descubierto.
**01:35:** Antena3 Noticias 3.
Albistegia
**02:00:** Televenta.
**04:30:** Repeticion de programas.
**06:15:** Se ha escrito un crimen.
Telesaila.